



MEZUAK

◆◆◆
Kontzertua

Boskoitz haize boskotearen kantaldia EHUREN Gasteizko unibertsitate pabilioian. ■ Goi mailako bost musikari gaztek osatutako Boskoitz haize taldeak kontzertua egingo du bihar, EHUREN Gasteizko unibertsitate pabilioian; musika klasikoa joko dute Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kide diren lagunok. Boskoteak unibertsitate pabilioian jardungo du, eguerdiko 12:15etik aitzina.

◆◆◆
Hitzaldia

NUPEko ikasle estatubatuarren hitzaldia Afganistango gerraren inguruan. ■ Nafarroako Unibertsitate Publikoan diharduten Estatu Batuetako ikasleek hitzaldia eskainiko dute, gaur goizeko 11:00etan, ikasgelategi nagusian. Estatu Batuen aurkako erasoak eragin duen nazioarteko egoeraz mintzatuko dira Iruñera batu diren lagunok.

◆◆◆
Antzerkia

'Exceptions to gravity' antzezlanaren aurkeztuko du Avner Eisenberge Leioako EHUREN campusean. ■ *Exceptions to gravity* antzerki saioa emango du Avner Eisenberg aktoreak EHUREN campusean. Gaur eguerdiko 12:00etan hasita, eguneroko jardura arruntenak egiteko ere zailtasun ikaragarriak dituen gizabanako baten inguruan mintzatuko da Eisenberg. Leioako areto nagusira biltzen direnek ordu eta erdi gozatuko dute Eisenbergen erakustaldiaz.

◆◆◆
Kontzertua

Jaime Urrutia abeslariaren erakustaldia Ibaetako campusean. ■ EHUREN Ibaetako campusean abestuko du Gabinete Caligari taldeko kide izandako Jaime Urrutiak. Bihar eguerdiko 12:15ean emango du kantaldia, I. M. Barriola ikasgelategian. Pop soinu batak lana aurkeztuko du Urrutiak. 80ko hamarkadako musika oroitaraziko du abeslariak.

◆◆◆
Lehiaketa

Kantautoreen lehiaketa Nafarroako Unibertsitatean. ■ NUK kantautoreen norgehiagoka antolatuko du. Hartan jardun gura dutenek 2002ko otsailaren 28a dute musika lana aurkezteko epemuga.

IRUÑEAN pisua osatzeko pertsona bat behar da. Arrosadiko campusetik nahiko gertu. Alokairu merkea: 25.000 pezeta hileko. Albait azkarren bete behar dugu pisua. 645345560 telefonora deitu.

ERANDION pisua osatzeko neska bat behar da. Herriko metro geltokiaren parean kokatutako etxebizitza da. Etxe txukuna eta ondo hornitua. 679632762 edo 944675137 telefonoetara deitu, eguerdi partean ahal bada.

DONOSTIAN pisua osatzeko bi pertsona behar dira. Ibaetako campusean kokatutako etxea da bete behar duguna. Alokairu merkea: 23.000 pezeta hileko. Bi pertsona aurkitzekotan, prezioa merkatuko litzateke. 654399876 edo 943254356 telefonora deitu, gaez ahal izanez gero.

BEKAK

Bekak. Informazio gehiago jasotzeko: www.euskadi.net; www.mec.es/becas/becas.html; www.boe.es/noticias/becas.html; www.infocurso.com; www.becas.com; www.ahoraque.com; www.wanadoo.campus.com; www.infoempleo.com; www.igsap.map.es/does

EUSKAL HERRIA

Pasaiako Itsas Institutuan eta Ondarroako Antiguako Andre Mariaren Eskolan arrantza ikasketak egiteko bekak banatuko dituzte

Deitzailea: Eusko Jaurlaritza.

Baldintzak: 2001-2002 ikasturtean ikastetxe bi horietan dabilzanek eskatu ahal izango dituzte bekak. Ondoko gastuak apaltzeko emango dituzte bekak: ohiko etxetik kanpo bizitzeko, ikastegietara joateko, mantenua ordaintzeko eta ikasteko materiala erosteko, alegia.

Zenbatekoa: Gutxienez 25.000 pezeta eta gehienez 400.000 pezeta hileko.

Epea: Abenduaren 20an agortuko da epea.

Informazioa: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila; telefonoa: 945019631.

Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Euskal kulturaren inguruko dokumentuak berreskuratzen jarduteko Jesus Olaizola bibliografia beka emango dute

Deitzailea: Antso Jakituna Fundazioa.

Baldintzak: Diplomaduna edo lizentziaduna izatea. Espedientearen eta aurretik euskal kulturaren inguruan egindako lanen arabera hautatuko da bekaduna; eskaria egiten dutenek aurretik lortutako beka, sari eta etxetarako kontuan hartuko dira. Antso Jakituna Fundazioaren ondarea osatzeko proiektuak duen interesaren arabera ikerlan proposamenak lehentasuna izango dute. Pertsona bakar bati edo ikerketa talde bati eman ahal izango zaio beka. Bekaren xedea euskal bibliografiaren inguruan ikertzea da. Euskal kulturaren edozein adierazpeni buruzko dokumentazioa berreskuratzea eskatuko zaie beka eskatzen duten ikasleei.

Zenbatekoa: 1.000.000 pezeta.

Epea: Azaroaren 30ean agortuko da epea.

Informazioa: www.fsancho-sabio.es.

Iturria: Antso Jakituna Fundazioa.

Arte plastiko, argazkigintza eta zinema arloko artisten sormena laguntzeko bekak banatuko dituzte

Deitzailea: Hondarribiko Udala.

Baldintzak: Hondarribian jaioa izatea edo gutxienez bertan bost urtez bizitakoa izatea galdatzen zaio beka lortu gura duen orori.

Zenbatekoa: 500.000 pezetakoa da beka.

Epea: Abenduaren 31n bukatuko da epea.

Informazioa: Hondarribiko Udaleko Kultura Sailean dago informazio gehiago.

Iturria: Hondarribiko Udala.

Ikerketa antropologikoak, etnologikoak eta arkeologikoak egiteko Jose Miguel Barandiaran bekak banatuko dituzte

Deitzailea: Barandiaran Fundazioa.

Baldintzak: Bakarka jardun gura dutenek nahiz horretarako osatutako lan taldeek eska dezakete beka. Taldea osatzekotan, proiektuaren zuzendari-arduradun bat hautatuko beharko dute ordezkari. Euskaldunek edo Euskal Herriko lurralde guztietan egoitza dutela egiaztatzen dutenek izango dute lehentasuna. Ikerketa gaiak Euskal Herriko arkeologia eta etnologia izango dira. Lan argitaragabeak soilik onartuko dira; horiek ezin izango dira beste proiektu handiago batzuen atalak, hots, beste finantzaketa iturriak dituzten proiektu handiagoen zatiak.

Zenbatekoa: 2.400.000 pezeta emango zaizkie beka lortzen duten ikasle guztiei.

Epea: Abenduaren 31n agortzen da epea.

iraupena: Amaierako lanak beka onartu eta bi urte eta erdiko epean aurkeztu beharko dira.

Informazioa: Jose Miguel Barandiaran Fundazioan dago informazio gehiago.

Helbide elektronikoa: el-sev@sk.ehu.es

Iturria: Jose Miguel Barandiaran Fundazioa.

ESPAINIA

Lan arriskuen prebentzioarako lanetan trebatzeko bekak banatuko dituzte goi tituludunen artean

Deitzailea: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak, eta Laneko segurtasun eta Higieneko institutu nazionalak antolatuko dute beka.

Baldintzak: Fakultate edo Goi Eskola Tekniko batean lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto titulua eskuratzeko irakasgai guztiak gaudituta edukitzea beharrezkoa da. Ikasketa horiek 1998ko ekainean edo gerora bukatutakoak behar dute

izan. 1998ko ekaina baino lehen bukatutako ikasketak onartuko dira, betiere ondoko prestakuntza alorretan ibili izanagatik: medikuntza-prestakuntza (IR), erizaintza-prestakuntza (FI), biologia-prestakuntza (BI) edo kimika-prestakuntza (QUID). Kasuotan, ikasketak, gehienez ere, 1995eko ekainean bukatutakoak izan daitezke.

Zenbatekoa: 841,42 euro hileko. Bekadunek Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren osasun- eta istripu-laguntza bermatzen duen aseguru bat jasoko dute, eta bidaia eta dietetako gastuak ordainduko zaizkie.

Epea: Abenduaren 4an agortzen da epea.

Informazioa: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa. Torrelaguna, 73 28027 Madril Tfnoa: 913144511; <http://www.boe.es>

Iturria: 2001-11-14ko 273. BOE, 41636. or.

Energiarekin zerikusia duten ikerketa proiektuak prestatzeko bekak emango dituzte

Deitzailea: Gomez Pardo Fundazioa.

Baldintzak: Unibertsitateko edo goi-mailako ingeniarietako edo ingeniarietako teknikoko titulua duten nazionalitate espainiarreko pertsonak lortu ahal izango dute beka. Eskatzaileek eskaera bana egin ahal izango dute, ikastetxe bakarrean. Gomez Pardo Fundazioaren helburua da energiarekin zerikusia duten gaietako azterlanak zabaltzeko, ikastaro eta mintegietara joateko eta energia-gaien inguruko ikerlanak egiteko bekak edo laguntzak ematea.

Zenbatekoa: Milioi bat pezeta gehienez.

Epea: Abenduaren 14an agortzen da epea.

iraupena: Urtebete gehien jota.

Informazioa: Gomez Pardo Fundazioa; Madril; Tfnoa: 914417921 edo 914422656

Iturria: Gomez Pardo Fundazioa.

Kultura erakundearen ardurapeko jardura eta gaietan prestatzeko bekak emango dituzte

Deitzailea: Hezkuntza, kultura eta Kirola Ministerioa.

Baldintzak: Europako ezein herrialdeetako ikasleek eska dezakete beka. Dirulaguntzen jomuga da ikasleek Hezkuntza eta Kultura Ministerioak kudeatzen duen Espainiako Ondaren Historikoa-ren Institutuan kultura ondasun higigarri eta higiezinen zaharberrietan jardutea. Museologia eta bibliografia bekak, eta arte plastikoak eta argazkigintza lantzeko dirulaguntzak banatuko dituzte. Orotara 150 bat beka emango dituzte.

Zenbatekoa: Beka eskatzailearen arabera izango da bakoitzak jasotzen duen diru kopurua.

Epea: Abenduaren 3an agortzen da epea.

Informazioa: Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioa. Tfnoa: 917018000.

Iturria: 2001-11-02ko 263. BOE, 39946. or.

EUROPA

2002ko udan alemana ikasteko bekak banatuko dituzte

Deitzailea: Alemaniako Hezkuntza Ministerioa.

Baldintzak: Espainiako unibertsitate bateko goi mailako tituluduna edo azken urteko ikasle izatea. Alemana jakitea beharrezkoa da. Alemana menperatzeko ikastaro trinkoetan izena ematen dutenek eta ikasketa unibertsitarioak nota onez gauditu dituztenek lehentasuna izango dute beka lortzerako orduan.

Zenbatekoa: Alemanian egon bitartean mantenu —ostatua, matrikula, bazka...— osoa ordainduko zaie beka lortzen dutenei.

Epea: Abenduaren 7an agortuko da epea.

iraupena: 2 hilabetez luzatuko dira bekak.

Informazioa: Alemaniako Enbaxada. telefonoa: 913913944, www.daad.de.